

Jose Ignazio Ansorena

Trijeminoa

Donostian XX. mendearen hasieran “trijeminoa ukitzea” esaera hitzetik hortzera erabiltzen zen. Kontu famatua baitzen Fernando Asuero dokto-reak trijemino nerbio hori sudurretik sartutako ziritxo batez ukitu eta gaitz guz- tiak sendatzen zituela... ustez. *Asuero terapia* teknika miragarri horren sona ez zen auzoan geratu. Espainia osoan hedatu zen, baita Ameriketara ere. Abestiak sortu ziren (Miguel Matamoros ezagunaren *El parali- tico* esaterako), film dokumentalak, libu- ruak... Plaza bat ere sendagile ospetsuaren izenez bataiatu zen Errioxako Cihuri herrian.

Askorentzat salbatzaile eta itxaropen bakarra izan arren, Asuero dokto-rea per- tsona eztabaidatua izan zen eta istiluak sortu zituen, espetxetik ere pasa zelarik. Primo de Rivera jeneral diktadorearen babesa zuen eta horri esker hainbat kinka larritik onik ateratzea lortu zuen. Baina gaur egun inor ez da Asuero dok- tore harekin oroitzen, barre murrizta egiteko ez bada. Txer- polaria besterik ez omen zen.

Gaixo dagoenak osasuna amets. Garai eta egoera nahasie- tan salbatzaileen beharra eta desi- ra areagotu egiten da bizitzan. Horregatik edozer onartzeko prest egoten gara horrelakoetan. Badakigun arren salbatzaile gutxi etorriko zaigula, gu geu ez bagara.

* * *

“Etsipenezko garaiak bizi ditugu euskaldunok. Nekea handiegia da, zama ezin pisutsuagoa, ez dugu bidear- ren amaieran helburu txukunik soma- tzen... Ni eta beste asko ere, etsita gaude”. Horrela mintzatu zitzaidan bihotzez maite dudan adiskide bat joan den batean. Bel- dur naiz sentimentu hori zabaltzen bada ez ote garen salbatzaileak bilatzen hasiko.

Espainiako Zapatagin Nagusiak ere sal- batu nahi gaitu. Konpainia txarretatik libratu. Ondo eta zuzen ibil gaitezen oine- takoak egokitu dizkigu. Bere neurrikoak ordea. Penduluaren jokoa eginez, ETAre- kin negoziatzetik beste muturrera pasa da



JUDIT FERNANDEZ

bat-batean. Ez kontsultarik, ez EAERik, ez Amnistiaren Aldeko Batzorderik, ez EHAKrik. Lehen ere beste batzuek Bata- suna, *Egin* edo *Egunkaria* gizartetik ezaba- tu zituzten era berean. Trijeminoa ukitu digu euskaldunoi. Ez du osaketarik lortu- ko. Txerpolarien arazoa da.

Zerbait lortu du baina. Askoren etsipe- na. Ez berak bakarrik, ETAre kolabora- zioa bikaina izan da horretan. Etsipena hortxe dago, ezker abertzalean ere, ez dago ukatzerik. Oraintxe, hau idazten ari naizela, gazte tropa bat dabil inguruan manifestazioan. *Eusko Gudariak* kantatzen hasi dira eta, beste garaietan ez bezala, behetik, do minorrean, hasi dira. Oso tonu baxuan. Itxaropen ezaren tonuan.

Ezker abertzaleko hainbat buruzagik guzti honen aurrean hiritarren erantzuna eskatu dute. Eskasa izango da eta beraiek ere jakitea espero dut (okerragoa izango litzateke ez konturatu izana). Zenbatetan eskatu diegu bada hiritar gehienok beraiei zerbait eta gorrarena egin dute? Hauek ere trijeminoa ukitu digute sarri.

* * *

Arnaldo Otegiarekin bat nator.
Bigarren atala jokatzeko dago
oraindik. Eskaera bat jokalarik guztioi.
Ez dugu txerpolaririk nahi, ezta
erositako epailerik ere. Mesedez,
ez jarrai publikoari trijeminoa ukitzen

Hala ere, itxaropenerako zirrikitua badago. Ez da inozokeria, ez da batzuk fede txarrez saltzen duten itxaropenaren irudi mengel min- dulina. Filosofo eta intelektual askoren iritziz, bizitzari aurre egi- teko modu intelijente bakarra da. “Esperantza gauzen ezagutza osoa da” gogorazten du Claudio Magrisek. Itxaropenak ez baitu bakarrik gauzak eta gertakarien itxura eta azala ikusten, beren baitan dauden aukerak eta ahalmenak nabarmentzen ditu, eta konpromisoa hartzen hobera garatzeko.

Ni ere Arnaldo Otegiarekin bat nator. Bigarren atala jokatzeko dago oraindik. Eta, partida gehienetan bezala, jokalarik gutxi batzuk dira eta ikusleak milaka.

Eskaera bat jokalarik guztioi. Tematuta baikaude asko eta asko esperantari eus- ten. Ez dugu txerpolaririk nahi, ezta erosi- tako epailerik ere. Mesedez, ez jarrai publikoari trijeminoa ukitzen. ■